



GOZATU ERAKUSKETAZ BESTE ERA BATERA LIBURUKKA HONEKIN



# Sorollaren

ERRONKA

⊕ CULTURA EN VENA



José Jiménez Aranda, *Joaquín Sorolla margolaria*.  
© Pradoko Museo Nazionala, P004354.  
Cultura en Venarentzako fotomuntatzea: Jorge Salgado

# Sorollaren

ERRONKA

Sorollaren erronka erakusketa hau bestelako modu batean ezagutzeko jolas bat da: haren obretan murgilduz, ospitalean barrena ibiliz eta istorioek, oroitzapenek zein emozioek gidatzen zaituzten bitartean.

Ospitalean gaude, eta arteak prozesu honetan ere zuri lagun egitea nahi dugu. Mugitzea zure suspertze-prozesuaren parte da, eta ibilbide honek jakin-minez eta gozamenegaz egiten lagun diezazuke.

Hasi nahi duzun obratik, ibilbidea osatu arte. Liburuxka hau erabil dezakezu, edo QR kodea eskaneatu dezakezu. Irakurri mezua, jarraitu pistei... eta utzi arteak gida zaitzan.



Nola eskaneatu QRa?

Ireki zure mugikorreko kamera eta jarri QRari begira. Itxaron segundo batzuk eta mezu bat edo esteka bat agertuko da pantailan. Ukitu esteka eta erronkaren orrialdea irekiko zaizu mugikorrean.





## BAINUTIK ATERATZEN

Haur biluzia urretatik atera da, eta ama lasai baina irmo haurra lehortzen ari da. Zaintzaren eguneroko une bat, maitasunez eta arretaz egindako keinu bat.

Gogoratzen al duzu arrastoa utzi dizun zaintza-keinuren bat, txikia izan arren funtsezkoa?

Joaquín Sorolla Bastida, *Bainutik ateratzen* (xehetasuna), 1915. Mihise gaineko olio-pintura. 130 × 150,5 cm.  
© Sorolla Museoa, inb. zk. 01115



## HONDARTZAN LASTERKA

Haurrak oinutsik dabilta lasterka itsasertzean, argi, gatz eta haize artean. Gorputza jolasa da, bultzada, abiadura: haurtzaroa ospakizun fisiko gisa.

Zein eguneroko mugimenduren falta sentitzen duzu, edo zein eskertzen duzu gehien ospitalean zaudenetik?

Joaquín Sorolla Bastida, *Lasterka hondartzan* (xehetasuna), 1908. Mihise gaineko olio-pintura. 90 × 166,5 cm.  
© Asturiasko Arte Ederretako Museoa. 1958





## ARRATSALDEKO EGUZKIA

Eszena honetan, Sorollak kostaldeko lanaren duintasuna margotu zuen egunaren amaieran. Argi epelak dena inguratzen du. Indarra gorputzen baturan eta ahaleginaren ondorengo lasaitasunean dago.

Zein balio handiko lankidetzaz-modu gogoratzen dituzu, nahiz eta beti agerikoak ez ziren?

Joaquín Sorolla Bastida, *Arratsaldeko eguzkia* (xehetasuna), 1903. Mihise gaineko olio-pintura. 298,3 cm × 440,6 cm. Courtesy of The Hispanic Society of America, New York. A58



## AMA

Amatasuna babesleku gisa. Ama eta haurtxoaren arteko lotura, argi soiltasunarekin, artifiziorik gabe, lotura ia sakratu bihurtzen den horretan.

Eman al diozu norbaiti ama batek ematen duen zaintza hori, zure seme-alabak ez izan arren?

Joaquín Sorolla Bastida, *Ama* (xehetasuna), 1895-1901. Mihise gaineko olio-pintura. 125 cm × 169 cm. © Sorolla Museoa, inb. zk. 00324







## BELA JOSTEN

Eszena horretan, Sorollak lan kolektiboa miresmenez irudikatzen du. Emakumeek bela josten ari dira, ontziak nabigatu ahal izateko. Ez dago erretorikarik, jardun partekatua baino ez.

Zein talde-lanek edo -keinuk sentiarazi zaituzte zerbait garrantzitsuren parte zarela?

Joaquín Sorolla Bastida, *Bela josten* (xehetasuna), 1896.  
Mihise gaineko olio-pintura. 220 cm x 302 cm.  
© Argazki-artxiboa - Fondazione Musei Civici di Venezia



## GARESTIA DELA DIOTE ORAINDIK ERE!

Hauxe da itsaso argitsuaren ifrentzua: arriskua, galera eta lanaren gogortasuna. Zauritutako gazteak itsasoa ogibide izateak dakarren ordaina irudikatzen du.

Zer zailtasun gainditu dituzu zuk uste zenuena baino kemen handiagoz?

Joaquín Sorolla y Bastida, *Oraindik ere arraina garestia dela diote!* (xehetasuna), 1894. Mihise gaineko olio-pintura. 151,5 cm x 204 cm.  
© Pradoko Museo Nazionale. P004649





## XÀBIAKO HARKAITZAK ETA TXALUPA ZURIA

Txalupa zuri bat dago harkaitzen artean, egonean. Itsasoa kolore hutsa da: paisaia bat harmoniazko esperientzia bihurtuta. Ez dago kontakizunik, presentzia hutsa baizik.

Zein irudik, kolorek edo lekuk eman dizute bakea gehien behar zenuenean?

Joaquín Sorolla Bastida, *Xàbiako harkaitzak eta txalupa zuria* (xehetasuna), 1905. Mihise gaineko olio-pintura. 62,5 cm × 84,7 cm.  
© Carmen Thyssen-Bornemisza Bilduma. CTB.2000.53



## GITARRA JOTZEN

Emakume bat gitarra jotzen ari da, beste bat isil-isilik entzule duela. Musika laguntasun-keinu bat izan daiteke, hitzik gabe zaintzeko modu bat. Giro intimo horretan, artea lotura bihurtzen da.

Gaizki egon zarenean, zein laguntza-modu estimatu dituzu gehien?

Joaquín Sorolla Bastida, *Gitarra jotzen* (xehetasuna), c. 1889. Kartoi gaineko urmargoa. 40 cm × 54,5 cm.  
© Carmen Thyssen-Bornemisza Bilduma. CTB.1994.26



# Cultura en Vena



Cultura en Vena fundazioaren xedea pertsonen bizitza artearen eta kulturaren bidez hobetzea da, horiek ohikoak ez dituzten inguru kalteberetara hurbilduz; besteak beste, ospitaleetara eta biztanleria galtzeko arriskuan dauden landa-eremuetara.

Osasunaren Mundu Erakundeak berretsitakoaren bidetik, arte-jardunek osasunean eta ongizatean dituzten ondorio onuragarriak buruzko ikerketa sustatzen dugu, eta kultura-sektorean enplegua eta zirkuitu berriak sortzen ditugu. Horrez gain, arteak osasun-politika publikoetan txerta daitezen dihardugu lanean.

## Izan ere, kulturak benetako onura dakarkio osasunari



Goian: "¿Sorolla ospitale batean?" erakusketa, Madrilgo Puerta de Hierro Majadahonda Ospitaleko atondoan. Behean: "¿Goya ospitale batean?" erakusketa, Zaragozako Miguel Servet Ospitaleko Onkologiako Eguneko Ospitalean.

# Sorollaren

ERRONKA